

**LANGILE PASTORALTZA – KARIDADE ETA ZUZENTASUNERAKO ORDEZKARITZA –  
BILBOKO GOTZAITEGIA**

**20 EGUN, ALBERTO ETA JOAQUINEK ZALDIBARREN IZAN EBEN ZORITXARREKO  
ISTRIPUTIK**

Hogeい egun igaro dira Alberto eta Joaquin Zaldibarreko zabortegian zaborren azpian harrapatuta geratu ziranetik. Egun gogorrak, gatxak izan dira eta atsekabea, ulertu ezina eta amorrua nagusitu dira. Laneko ezbehar honeen aurrean ezin gara ez ohitu, ezta 'halabeharraren' errua izan dala esan be.

Langile Pastoraltzatik bat egin gura dogu joan dan asteburuan, Zaldibarren eta Eleizbarrutiko beste hainbat lekutan, Eukaristietan egin izan diran eskaerekin. Era berean, gure alkartasuna eta hurkotasuna adierazo gura deutseguz Joaquin eta Albertoren senide, adiskide eta lankideei.

Zaldibarreko zabortegiko istripuan, giza zoritzarrari zoritzar ekologikoa gehitu jako eta biktima-andana handia eragin dau: zabortegiko gainerako beharginak zein euren osasuna arriskuan somatzen daben inguruko herrietako auzotarrak.

Frantzisko Aita Santuak "LAUDATO SI" Entziklikan dinoskunez: Gure planetak, danona dan etxeak, ezin ditu onartu "ingurumenaren hondamenaren, gaur egungo garapenereduaren eta gizon eta emakumeen bizitzan bazterkinak eragitearen kulturaren ondorioak". Zaldibarreko hondamendia, bestelako aukerak bilatzera, "bestelako aurrerapen eta garapen bidea ekarri daiken ekoizpen eta kontsumo erritmoaren moteltzea eragitera" eta, aldi berean, "giza sormena eta aurrerakuntza-ametsa bertan behera iztea ez dakarren aukerei bidea zabaltzera" bultzatzen gaituan krisi ekologikoaren eta balioen krisiaren beste osagai bat baino ez da. Nahitaezkoa da norabidez aldatzea, gizon eta emakumeen bizia eta honetatik bereiztezina dan izadiaren bizia lehenetsi eta zaintzeko.

Honako egoeren aurrean, gogor eta ozen nabarmendu gura dogu gizon-emakumearen duintasunaren nagusitasuna ekonomia, lan edo gizarte jarduera guztien funtsezko eredu lez. Gizarte zein erakundeok geure esku dagozan ekonomia, profesional eta giza ahalegin guztiak egin behar doguz biktima bako lana bermatzeko.

Eleiz alkarte lez, egoerahoneek ezagutzera emon behar doguz eta konpromisoak hartzea eragin:

- Biziaren alde egiteko eta bizia sustatzeko laneko segurtasun eta osasunaren arloan, lana bizi gai dalako, "Eleiza Gizalegezko Lanaren alde" ekimenaren bidez azpimarratzen dihardugunez.
- Danona dan etxearen zainketaren alde, ez dogu-eta ahaztu behar "lurra garana".

Bilbao, 2020.eko otsailaren 25a

**LANGILE PASTORALTZA – KARIDADEA ETA ZUZENTASUNERAKO ORDEZKARITZA –  
BILBOKO GOTZAITEGIA**

**20 DÍAS DESDE EL TRÁGICO ACCIDENTE DE ALBERTO Y JOAQUÍN EN ZALDIBAR**

Han transcurrido 20 días desde que Alberto y Joaquín quedaron sepultados en el vertedero de Zaldibar. Están siendo días muy difíciles, donde se mezclan el dolor, la incomprendión y la rabia. Ante este tipo de accidentes laborales no podemos, ni acostumbrarnos, ni culpar de ello a la ‘fatalidad’.

Desde el ámbito de Pastoral Obrera queremos sumarnos a las peticiones que se han realizado en las eucaristías de este pasado fin de semana en Zaldibar y otros lugares de nuestra Diócesis. Del mismo modo, queremos transmitir nuestra solidaridad y cercanía a los familiares, amistades, compañeros y compañeras de Joaquín y Alberto.

En el accidente del vertedero de Zaldibar se dan la mano una tragedia humana y otra ecológica, con un amplio abanico de víctimas, desde el resto de trabajadores del vertedero hasta la población de las localidades cercanas, que sienten en peligro su salud.

Como nos dice el Papa Francisco en la Encíclica “LAUDATO SI”: Nuestro planeta, nuestra casa común, no puede permitirse “los efectos de la degradación ambiental, del actual modelo de desarrollo y la cultura del descarte en la vida de las personas”. El desastre de Zaldibar es un elemento más de una crisis ecológica y de valores, que nos llama a buscar alternativas, a “desacelerar un determinado ritmo de producción y consumo que puede dar lugar a otro modo de progreso y desarrollo” y al mismo tiempo “abrir camino a oportunidades diferentes, que no implican detener la creatividad humana y su sueño de progreso”. Es urgente cambiar el rumbo, para que el cuidado de la vida de las personas y de la naturaleza, como elementos inseparables, sea prioritario.

Ante estas situaciones, insistimos con fuerza en la centralidad de la dignidad de la persona como referente fundamental de toda actividad económica, laboral o social. Tanto la sociedad, como las instituciones, no debemos escatimar esfuerzos económicos, profesionales y humanos para garantizar un trabajo sin víctimas.

Como comunidad eclesial tenemos que procurar que estas situaciones se conozcan y se asuman compromisos:

- En la defensa y la promoción de la vida en el campo de la seguridad y salud en el trabajo, porque el trabajo es para la Vida, tal como venimos insistiendo desde la Iniciativa “Iglesia por el trabajo Decente”.
- En el cuidado de nuestra casa común, porque no debemos olvidar que “Somos tierra”.

Bilbao 25 de febrero 2020